

JUNEREN BIZITZA

Bazen behin June izeneko neska ilehori eta begi marroiko bat, ikusi ezin zuena eta txakur bat zeukan laguntzeko. Aitak mediku askorengana eraman zuen, baina ezin izan zuten ezer egin oso larria zelako. EGun batean oso ona zen mediku batengana eraman zuen, baina ez zuen sendatu, lehen bezala utzi zuen, eta triste joan zen etxera.

Eskolara joaten zenean, oso gaizki pasatzen zuen bakarrik uzten zutelako. Baina egun batean, Haizea izeneko neska oso jatorra joan zen klasera. Lagunak egin ziren eta beti elkarrekin jolasten zuten. Ia ez zuen txakurra behar, bere laguna zuelako, eta gurasoek familiako beste bat bezala maite zuten Haizea.

Urte batzuk eta gero, June ezkondu zen, eta bere laguna Haizea berarekin jarraitzen zuen. June oso eder jarri zen ezkontzarako eta oso ondo pasatzen ari ziren. Gero, tarta moztera joan ziren. Bat-batean, bihotzekoa eman zion Juneri, eta korrika joan ziren medikuarengana. Gurasoak etsita zeuden eta laguna ere etsita zegoen eta ezkontza bertan behera geratu zen eta gonbidatu guztiak etxera joan ziren.

Egun batzuen ondoren, June komatik esnatu zen eta begiak ireki zituenean, bere familia osoa ikusi zuen. June ez zekien zer gertatzen zen, bere familia negarrez zegoen baina oso pozik ere. Bat-batean konturatu zen dena ikusten zuela: koloreak, formak, pertsonak, zenbakiak. Familia hunkitu egin zen denbora luze baten ondoren begiak ireki zituelako. Medikiak proba bat egin zion eta betirako ikusiko zuela esan zion. June oso pozik joan zen eta ezkontza bat antolatzen hasi zen berriro.

ARROSA

